

**OÑATIKO UDALAREN ETA OÑATIKO SAN LORENTZO
AUZO-JAI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza, 1).

Bestetik UXUE AGIRRE BIKUÑA andrea, San Lorentzo Auzo-jaien Elkartearen izenean (G56170590) aritzeko gaitasuna duena (NAN: **3485**G / Helbide soziala: San Lorentzo Auzoa, 2 eskb).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau **ADIERAZTEN DUTE** :

I. Oñatiko herrigunea ez ezik, herriguneko auzoak ere bizirik daudela erakusten dute Auzo-jaien Elkarteek, eta azken urteetan, udalarekin lankidetzan, lan oparoa egiten ari dira auzoak dinamizatzen. Izaera eta inguru propioa du Auzo-jaien Elkarte bakoitzak eta, egun, auzotarren topagune bilakatu dira.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute **San Lorentzo Auzo-jai Elkarte (G56170590)** zuzenbide pribatuko elkartea dela, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute San Lorentzo Auzo-jai Elkarteak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan-harremanik ere.

III. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22. artikulua dio (22.2.a atala) toki erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza nominatiboak zuzenean eman ahalko direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

IV. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 28. artikulua dio hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

V. Oñatiko herriguneko auzo-jaien elkarteek antolatzen dituzten jaiek izaera propioa eta bakarra dute. Hori dela eta, auzo-jaien elkarteak sustatzeko eta bultzatzeko dirulaguntzak ezin dira lehiaketa bidez deitu, elkarte jakin bat baita onuradun posible bakarra.

VI. Oñatiko Udaleko 2024rako aurrekontuetan, dirulaguntza zuzena eta izenduna aurreikusi da San Lorentzo Auzo-jai Elkartearen alde, herriguneko auzo-jaietan kultur egitasmoak sustatzeko.

VII. Eskumenak.

San Lorentzo Auzo-jai Elkarteak garatuko dituen jarduerak —dirulaguntza honen xede direnak— Oñatiko Udalaren dirulaguntzak emateko eskumen alorraren barne daude

Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera. Aipatzekoak dira, besteak beste, honako hauek:

- Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.m artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atala.
- 2022-10-11ko Alkate Dekretuz onarturiko 2023-2026ko Dirulaguntzen plan estrategikoan -zazpigarren lerro estrategikoa: kulturaren dinamizazioa—, helburu estrategiko gisa ezarri da kultura eta jai-jardueren garapena sustatzea.

VIII. Oñatiko Udalak eta herriguneko auzoetako jai elkarteko ordezkariak elkarriketak izan dituzte lankidetza sistema ezarri eta bermatzeko.

IX. Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetza-hitzarmen hau izenpetu da klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da:

- Oñatiko herriguneko San Lorentzo Auzo-jai Elkarteak antolatutako jai-programa gauzatzeak dakartzan gastuen finantzaketan laguntzea.
- Auzo-jai Elkartearen dinamika suspertzea, jaietan kultur jarduerak sustatu eta indartzeko, eta auzotarren topagune bilaka daitezen.

BIGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmenak urte bateko (2024) iraupena izango du.

HIRUGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu-saila.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak gauzatzeko, Oñatiko Udalak hiru mila eta ehun euro (3.100€) ordainduko dizkio Jai Elkarteari dirulaguntza izendun gisa.

.-Hitzarmen honen xede den dirulaguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2024 urteko Udal aurrekontuetan. Ordainketa 0800.481.338.05.01.5764.2024 partidaren eta haren lotespen-mailaren barruko kredituen kontura egingo da.

HIRUGARRENA: Dirulaguntza emateko prozedura.

Dirulaguntza **bi zatitan** ordainduko da:

- Dirulaguntza-eskaera onartutakoan, %70. (2.170€)
- Egitarauko ekintzen memoria ekonomikoa edo likidazioa aurkeztu eta onartutakoan, %30 (930€).

Horretarako, diruz lagundutako jardueraren izaerari zuzenean lotutako gastuak aurkeztu beharko dira, jarduerak egiteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen sortutakoak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

BOSGARRENA: Likidazioa eta epea.

Epe muga: 2024ko azaroaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak.

Memoria ekonomikoan, gutxienez, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Likidazio ekonomikoak sinatua joan beharko du:

- a) Egindakoaren memoria laburra (jaietako egitaraua).
- b) Gastu-sarrerren laburpen-taula.

Horretarako, Oñatiko web orritik jaitzitako gastu-sarrerren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da. (www.oñati.eus).

- c) Gastu guztien fakturak eta ordainagiriak.

Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte eta sinadurarekin). Ordainsaria 400€-koa baino gehiagokoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

- d) Programaturiko jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, prentsa oharrak...).

d.1.Jai programan Oñatiko Udalaren dirulaguntza jaso dela adierazi beharko da. Beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen diren kartel, egitarau eta hedabide guztietan.

d.2.Jaietako programazioaren hedapenean eta egiten diren komunikazio ekintzetan, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bermatuko da, eta generoaren arabeko rol eta estereotipoen erreprodukzioa saihestuko da.

d.3.Iruditegi eta hizkeraren erabilera ez sexistaren bitartez, gizarte-balio eta harreman-eredu berdinzaleak sustatuko dira.

Horrez gain, Udalak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 38/2033 legeak 30. eta 31. artikuluetan araututakoaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

SEIGARRENA: Auzo-jai Elkartearen betebeharrak Udalarekiko.

Antolatzaileak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutakoez gain, konpromiso hauek hartzen ditu Oñatiko Udalarekin:

6.1. Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira; bai eta dirulaguntzen Lege orokorraren 37.artikuluari aurreikusitako kasuetan ere.

6.2. Auzo-jai Elkarteak diru kontuen ikuskaritza edo auditoretza egitera behartuta balego edo/eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko balio, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1c) eta f) artikulua).

6.3. Auzo-jai Elkarteak erantzukizun osoa izango du auzoko jaien antolaketan eta horien garapenean gerta daitezkeen ezbehar, istripu eta bestelako gertakizunen aurrean, bai Udalarekiko eta baita hirugarren pertsonetako ere, pertsona fisiko zein juridikoa izan, izaera publikoa zein pribatua izan. Auzoko jai elkarteak auzoko jaiari dagokion erantzun zibileko aseguruia kontratatatu beharko du (kapital minimoa 150.000 eurokoa izango da), eta aseguru hori kontratatatu duela egiaztatuko. (44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa).

6.4. Auzo-jai Elkarteak antolatzen dituen jarduera guztietan istripuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko du (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak arautzeko).

6.5.Diruz lagunduko diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatu beharko ditu.

6.6. Auzo-jai Elkarteak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du bere osaeran, bai jaien inguruan antolatzen diren ekintzetan, bai jai-programa osatzeko egiten diren

kontratuetan. Jaietako jarduerak auzoko emakume eta gizonen interes eta beharretara egokitzea bilatuko da. Jai Elkarteak neurriak ezarriko ditu erabaki guneetan emakumeen edo gutxiegi ordezkaturako kolektiboen parte hartzea bermatzeko.

6.7. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, antolatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan: Jai egitarauko jarduera guztietan, euskara erabiliko da ahoz nahiz idatziz. Auzoko Jai Elkartearen kanpoko zein barneko komunikazioetan euskara erabiltzea ziurtatuko da. Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

6.8. Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, Oñatiko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko interesdunek administrazioaren esku jarritako datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua).

6.9. Hitzarmen hau egiteko arrazoia den jokabideari eustea.

ZAZPIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret. Dekretu legegilearen 114. artikulua) ezarritako muga baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat-batean bihurtuko dira betearazle.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Auzo-jai Elkarteak hitzarmenean jasotako baldintzak betetzen ez baditu, Udalak hitzarmena bertan behera utz dezake, eta Auzo-jai Elkarteak dirulaguntza itzuli beharko du.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Hitzarmenaren klausulak banan-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin, eta behar diren ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau sinatzen dute.

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan,

Oñatiko Udalaren izenean,

Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

San Lorentzo Auzo-jai Elkartearen
izenean,

Uxue Agirre Bikuña